

HIZKUNTZA BAT EZ DA
GALTZEN EZ DAKITENЕК
IKASTEN EZ DUTELAKO.
DAKITENЕК HITZ EGITEN
EZ DUTELAKO BAIZIK

Josean Artze



Euskararen Nazioarteko Eguna

Ekitaldi-sorta antolatu zuten Andoainen eta Urnietan, abenduaren 3an

AIURRI

Torturaren auzi iluna

"Karpeta Urdinak" dokumentalak torturak pairatutako herrikideak elkartu zituen / 8

Irunberriren
urteurrena ospatzeko
ekitaldi-sorta,
asteburu honetan
hasita / 9

Datozen egunotan
banatuko dituzte
Andoaingo Udalaren
eta Aldundiaren
egutegiak / 6



Kale berria 50,
Guipuzcoano zaharra

GABONETAKO AZOKA

AIURRIK POSTUA JARRIKO DU
Urtebeteko harpidetza egiteko aukera

Antolatzaileak:



ANDOAINGO
UDALA



ALDUNDIA

Harpidedun izatearen abantailak

44. zenbakia 2025eko abuztuak

IKUSBERA

Plazetako lagun horiek

Laster zenbaki berria jasoko duzu!

AIURRI

Eskualdeko informazioa, orain ere, Aiurriren WhatsApp kanaletan

Batu zaitez!

Aiurri Aiztondo

Aiurri Andoain

Aiurri Urnieta



Pagalegi-Garagartza mendilerroa, Aranoko herritik ikusita. AIURRI

“Interes ekologiko eta sozialetan oinarritutako planifikazioa behar da”

Dinamika bat abiatu dute 38 eragilek Eusko Jaurlaritzak energia berriztagarriei begira martxan jarri nahi duen Lurralde Plan Sektoriala gaitzesteko. Euren arabera, “eskala handiko” parke eoliko eta fotovoltaiakoen “hedapen masiboa” bultzatzen du planak

Erredakzioa URNIETA

“LPS honi ez!” dinamika sortu dute 38 eragilek, Eusko Jaurlaritzak onartzeko duen Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari (LPS) desadostasuna adierazteko. Egitasmoa osatzen duten kideen artean dira, besteak beste, Eguzki talde ekologista eta Urumeako Mendiak Bizirik zein Amasamendi Bizirik bezalako plataformak: “LPS hau onartu bezain pronto epaiegietara eramateko dugun konpromisoa publiko egin nahi dugu”.

Dinamikako kideen arabera, “eskala handiko” parke eoliko eta fotovoltaiakoen “hedapen masiboa” bultzatzen du Eusko Jaurlaritzak martxan jarri nahi duen planak, eta horrek “mendi-gain eta landa eremuen suntsiketa ekarriko du”. Bide horretan, ingurumen babesa eta herritarren ongizatea bermatu baino, planak “energia berriztagarrien negozioarekin irabaziak lortzen dituzten enpresa handien” interesak lehenesten dituelakoan dira eragileak:

“Aurkeztu den aurreproiektuaren arabera, enpresa energetiko handiek interes espekulatiβοetarako ateak zabalik uzten ditu”.

Horren aurrean, “lurralde-antolaketa koherente” baten aldeko aldarria luzatu dute, bi helburu nagusi ardatz hartuta: batetik, balio ekosistemiko, kultural eta sinboliko handiko eremuak babestea, eta, bestetik, ongizate kolektiboa hobetzeko baldintzak sortzea. Bada, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako planak bidea “kontrako norabidean” egiten duela salatu dute: “Interes ekologiko eta sozialetan oinarritutako planifikazioa behar da”.

Horrez gain, planaren edukien borondatea gaitzetsi dute, larrialdi klimatiko zein ekologikoaren auzian neurri eraginkorrak hartzeko bidean: “Energia berriztagarrien hedapen masiboak ez du zalantzan jartzen gaur egungo kontsumo-eredua, eta energiaren eskaera gero eta handiagoaren logikan kokatzen da”.

Planaren izaera “antidemokratikoa”

Eusko Jaurlaritzak indarrean jarri nahi duen planaren diseinuak zein onarpen-prozesuak “izaera antidemokratikoa” duela salatu dute dinamikako kideek, haien hitzetan, herri mugimenduek adierazitako oposizioari, erakunde zientifikoaren irizpideei eta aurkeztutako 4.000 alegazio baino gehiagori muzin eginda: “LPSaren aurreproiektuan marraztu den “lurralde egokien” mapak barne hartzen ditu Jaurlaritzak berak ingurumen inpaktu larriagatik atzera bota behar izan dituen zenbait proiekturen kokalekuak”.

Hori horrela, plan-proposamena atzera bota behar dela iritzi dute dinamikaren parte diren kideek eta dei egin diete herri eragileei, “tamaina honetako ofentsibaren aurrean” antolatuz, helburu zehatz batekin: “Plana auzitara eramatea eta auziaren salaketa kalera eramatea modu zabal eta bateratuan”.

POSTONTZIA

AEK-KO IKASLEAK URNIETA

Mugimenduaren bidez, hartu eta eman



“Mugimenduaren jolasa”, Zilegi Eskolan. AEK

Pasa den azaroaren 27an, Urnietako kiroldegian elkartu ginen AEKko ikasle eta irakasleak. Bertan, “Mugimenduaren jolasa” izeneko Zilegi saioan parte hartu genuen. Ia bi orduko saioa izan zen; 10:00etan hasi eta 11:30ean amaitu zen. Judit Alday eta Ane Marin fisioterapeutak izan ziren gai-emaileak.

30 pertsona inguru elkartu ginen tatami gelan, askotariko adin, euskara maila eta jatorritakoak. Ikasleok elkar ezagutzeko aukera izan genuen; ahots ezezagunak entzun genituen. Oinutsik geundela, geure burua aurkeztu genuen: Juditek izena eta bizilekua galdetu zizkigun. Horrela, mintzamina lantzeko aukera ere eduki genuen. Esan beharra dago askorentzat, batez ere hasiberrientzat, erronka handia izan zela gai-emaileen azalpenak ulertzea.

Hasieran, adituek gure lesioei eta kirol ohiturei buruz galdetu ziguten; horrela, ariketak parte-hartzaile ororen beharretara egokitzeke. Lehenik eta behin, korea aktibatzeke, lurrean etzanda jarri, eta arnasketa-ariketak egin genituen: teniseko pilota sabelean jarri, eta arnasa hartu eta bota ahala pilota mugitzen zela antzeman genuen. Horrez gain, teniseko pilota oreka-ariketak egiteko ere erabili genuen: hanka baten gainean jarrita, pilota gora eta behera bota genuen, esku batetik bestera pasa, hormara jaurti eta abar. Ondoren, binaka ez ezik, taldeka ere koordinazio-ariketak egin genituen: pilota elkarri pasa genion modu askotan, norabidea aldatu genuen... Azkenik, luzaketak egin genituen giharretako mina saihesteko.

Aipatzekoa da espazioaren egokitasuna; nahi adina toki genuen. Pribilegio handia izan zen horrelako bi adituk zuzendutako saioa jasotzea, eta gure esker ona adierazi nahi genieke egindako lanagatik eta laguntzeko erakutsitako prestutasunagatik.

Ikusten duzuen bezala, euskaltegian osasun fisikoa ere lantzen dugu. Judit eta Aneren laguntzaz denon artean giro polita eta atsegina sortu genuen, euskaratik eta euskaraz.

Bukatzeke, datorren Zilegi saioan parte hartzera animatu nahi zaituztegu: abenduaren 18an izango da, arratsaldean, eta rol-jokoak izango ditu hizpide Nahiko innsmouthtarak.

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia
• Postontzia



Egape Dantza Taldeko kideak, elizako arkupeetan, abenduaren 3an. AIURRI

Kantuak eta dantzak bat eginda

Bi hitzordu izan ziren herrian Euskararen Nazioarteko Egunean, kantu zein dantza-emanaldia eta Juan Mari Beltran Laukotearen kontzertua. Biek ala biek euskarari bultzada ematea izan zuten helburu

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Euskararen Nazioarteko Eguna aitzakia gisa harturik, kalera atera ziren herriko euskaltzaleak, hizkuntzaren aldeko aldarrikapena egitera. Arratsaldeko 18:00etan elizako arkupeetan egin zuten hitzordua herritarrek, Manttalek eta Egape Dantza Taldeak deituta. Hala, iragane-ko zein egungo euskal kantagintzako abesti ezagunak kantatzeko aukera izan zen, herriko dantzariak lagun. Bien bitartean, bertan izan ziren AEK-ko kideak ere, 2026ko martxoaren 19an hasi eta 29ra bitarte iraungo duen Korrikaren arropa saltzen. Behin eztarrikeria berotuta, Saroben izan zen eguneko bigarren geldialdia: iluntzeko 19:00etan, kontzertua eman zuen Juan Mari Beltran Laukoteak arte eszenikoaren gunean. Euskal Herriko zenbait eskualdetako ospakizun



Kantazaun taldea, elizako arkupean. AIURRI

publiko nahiz familiarretan erabiliak izan diren soinu-tresnak eta musikak ezagutzeko aukera izan zuten urnietarrek, bai eta soinu-tresna horiekin sortutako

doinu berriak entzuteko parada ere. Gainera, laukotearekin batera Egape Dantza Taldeko dantzariak ere parte hartu zuten ikuskizunean.

Hitzordu-sorta, euskararen alde



Beltran Laukotea eta EDT taldeko kideak, Saroben. AIURRI

Beltran Laukotea Euskal Herriko makina bat tontor eta lautadetara bidaiatzeko gonbita luzatu zuen, abenduaren 3an, Juan Mari Beltran Laukoteak. Gainera, bidelagun izan zituzten musikariek Egape Dantza Taldeko dantzariak.



Egape Ikastolako hainbat familia. ABALLARRI GURASO ELKARTEA

Familiak, euskararekin bat. "Herria da gorputza, hizkuntza da bihotza" lelopean, euskararen aldeko argazki aldarrikatzailea atera zuten Egape Ikastolako zenbait familiek, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira.



AEK euskaltegiko kideak. AIURRI

KORRIKA Martxoaren 19tik 29ra izango da 2026. urtean Korrika, Atharratzetik Bilbora. Bada, prestaketa-lanetan daude murgilduta, jada, AEK-ko kideak. Abenduaren 3an, lasterketa erraldoiaren arropa ipini zuten salgai.



Euskara ikasleak eta Udal ordezkariak, udal batzaraldi aretoan. AIURRI

Euskararen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak

"Euskara ezagutzen ez dutenentzat ere, ate berri bat da. Batzen gaituen hizkuntza bat. Elkar ulertzeko gonbidapen bat". Esaldi horiek Udalak onarturiko adierazpenean aurki daitezke eta, hein batean, aurtengo ekitaldi instituzionalaren adierazgarri izan ziren

Xabier Lasa ANDOAIN
Euskararen Nazioarteko Egunean, ekitaldia antolatu zuen Andoaingo Udalak udal batzaraldi aretoan. Ordezkaritza duten lau udal alderdi politikoek EUDEL-en adosturiko adierazpen instituzionala irakurri zuten, lehenbizi. Eta, ondoren, euskara ikasten ari diren ikasleei ongietorria egin zieten.

Lagun ugari hurbildu zen udal-letxera, gehien-gehienak AEK euskaltegiko ikasleak. Esker oneko hitzak jaso zituzten alderdietako ordezkarien aldetik, euskararen murgiltzeko hartu duten konpromisoagatik. Hitzak hartu zuten hainbat ikasleek, eta bati baino gehiagori emozioz beterik antzematen zitzaion. Marian Iñigo, Salka Jabbari,

Eric Reconco, Miriam Espinoza eta Erika Marigual izan ziren jendaurrean hitz egiteko prest agertu zirenak.

Guztiak ere A1 taldekoak dira, hasiera mailakoak, eta Maider Barandiaran dute irakasle.

Ekitaldiari amaiera emateko, esker oneko garaikurra jaso zuten AEK-ko taldeek. Haien guztien ordezkari-lanak egin zituzten

Abenduaren 3ko hitzorduak



AEKko ikasgelek garaikur bana jaso zuten. AIURRI

Udal batzaraldi aretoa Euskara ikasleak izan ziren goizeko protagonistak. Ikasle ugari bertaratu zen Udalak antolatutako ekitaldira. Euskara ikasteko kemena aitortu zieten ikasleei.



DJ Mikeltxik girotu zuen abenduaren 3ko arratsaldea. AIURRI

Makaldegia Eguraldiari zegokionez, ez zen giro baina DJ Mikeltxik lortu zuen Makaldegira hurbildu ziren haurrak dantzan jartzea. Amaiera polita eman zion abenduaren 3ari.

Salma Jabbari, Marian Iñigo, Vanesa Tomico eta Alexandra Isabel Amaya ikasleek. AEK euskaltegiaren izenean, bestalde, Olatz Peñagarikano zuzendariak jaso zuen garaikurra.

Ikasturte berezia da AEKren-tzat, 2026ko lehen hilabeteetan antolatuko baitute KORRIKA. Euskara ikasleentzat eta euskaldunon komunitatearentzat pizgarri berezia.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoaingo. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idaizkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocío Arias (Andoaingo), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).
Diseinua: Goienna / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:

ALJATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Urnieta udalo

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza berdintasunerako Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAIA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Hilaren 16an banatuko dituzte Andoaingo Udal egutegiak

Abenduaren 15ean argazki-lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia egingo dute Artxiboan, 18:30ean hasita



Artxiboko irudia. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Egutegiak abenduaren 16tik aurrera banatuko dituzte Salkinen egoitzan, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Eta astearte horretan, arratsaldean ere, 17:00etatik 19:00etara.

Honatx, argazkien egileak:

URTARRILA

“Euskal pilota”,

Asier Ruiz Izquierdo.

OTSAILA

“Luces y sombras en Sorabilla”,

Milagros Lavado de la Revilla.

MARTXOA

“Loreen antzera, kultura lora-tzen”,

Nerea Uralde Arrondo.

APIRILA

“Pequeña viajera, universos de tinta”,

Juan Pablo Fernandez Ramirez.

MAIATZA

“Escopeteros”,

José Miguel Romero Barco.

EKAINA

“Axeriak elizari begira”,

Imanol Fernandez Carballo.

UZTAILA

“Arte en la calle”,

Belen Veiras Liñares.

ABUZTUA

“Edozein modutan dira ederrak”,

Ane Jalon Zatarain.

IRAILA

“Guduak ez du aurpegiarik”,

Uxue Botas Peñin.

URRIA

“Andoaingo txinparta”,

Alain Saiz Antoñana.

AZAROA

“Harriz, suz eta arnasez egin-dako kultura”,

Francisco Javier Davila Muñoz.

ABENDUA

“Fotogramas”,

José Manuel Garrido Cobo.

Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko protokoloa

2019an abiatutako ekimena eguneratu eta jendaurrean aurkeztu du Andoaingo Udalak, eragileekin batera



Ekitaldia udaletxean egin zuten. Bideoa, ikusgai, Aiurriren webgunean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen indarkeria matxista kasuen aurrean eman beharreko erantzun instituzionala jasotzen duen protokoloa publikoki aurkeztu zuten, udaletxean bertan, duela bi aste.

Andoni Alvarez alkateak eta Haizea Barandiaran berdintasun zinegotziak gogorarazi zuten, 2019an onartutako dokumentuaren eguneraketa da. Orduko hura hainbat erakunderen arteko lankidetzaren

emaitza izan zen. Andoaingo Berdintasun Arloa, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria Saila, Osakidetza, Ertzaintza eta udalerriko ikastetxeak izan ziren parte-hartzaileak.

Protokolo hori mugarri garrantzitsua izan da, agerraldian adierazi bezala, “emakumeei ematen zaien arretan hobekuntzak ezarri” dituelako eta “erakundeen arteko koordinazioa, jarraipena eta sare-lana indartzen dituen lan-mahai iraunkorra sortzen lagundu” duelako. 2025eko uztailean, protokoloaren berrikuspena gauzatu zen, “tresna eguneratu eta kontrastatua izatea bermatzeko”. Modu horretara, “indarkeria matxistaren biktimei diren emakumeei harrera eta arreta hobea eskaintzea ahalbidetuko da, eta bide batez, azken urteotan indarrean dagoen lege esparruarekin bat egingo da”. Protokolo hori otsailaren 18ko Udalbatzaren osoko bilkuran onartu zen aho batez.

Eragile ugari bildu zuen protokolo eguneratua aurkezteko eta sinatzeko ekitaldiak.



2026ko egutegia banatuko dute asteburu honetan. ALDUNDIA

Larunbatean banatuko dute Gipuzkoako egutegia

Urnietan, 11:30ean hasita, udaletxearen aurrealdean; Andoainen, 13:00etan hasita, Goikoplazan

Erredakzioa URNIETA

2026ko egutegia osatzeko “Ekin. Zaindu. Bizi” lema aintzat hartu dute argazkilariek. Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarteak antolatutako argazki-lehiaketa izan da eta asteburu honetan eskualdera hurbilduko dira banatzera.

Iruñe Berasaluze foru bozemaileak agerraldian azpimarratu zuenez, “iazko banaketaren arrakastaren ondoren, lehen aldiz egutegia Gipuzkoa osoan banatu baitzen, udalerriz guztietara joango gara berriro”. Guztira, 40.000 ale inguru inprimatuko dira, eta banaketa udalerriz bakoitzeko biztanleriarekiko proportzionala izango da.

Egutegiari eta banaketa data eta lekuei buruzko informazio zehatza eman du Aldundiak. Beterri-Buruntzara larunbatean hurbilduko dira:

- Urnietako. San Juan kalea. 11:30-12:30.
- Andoain. Goikoplaza. 13:00-14:00.
- Hernani. Gudarien plaza. 10:00-11:00.
- Lasarte-Oria. San Pedro. 16:00-17:00.
- Usurbil. Mikel Laboa plaza. 17:30-18:30.

1.073 argazkitik

13 hautatu dituzte

Aldundiko eta Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarteak ordezkariak osatutako epaimahaiak 17 irudi finalista aukeratu zituen. Horien artean hautatu dituzte 13 irazleak.

Aurtengo saridunak

AZALA

Joserra Txintxurreta,

Artzaintza (Oñati).

URTARRILA

Miguel Caveno,

Por la nieve (Ordizia).

OTSAILA

Alberto Loyo,

Tolosako inauteriak (Tolosa).

MARTXOA

Josu Vegas,

Arrantzan (Orio).

APIRILA

Marijose Cueli,

Iratxe txikia (Oihanleku basoa).

MAIATZA

Iker Zubizarreta,

Esnebidetza (Urbia).

EKAINA

Antonio Murillo,

Dantzari (Arrasate).

UZTAILA

Jose Antonio Valor

Dijio863-Colores (Zarautz).

ABUZTUA

Ane Jalon.

Ezeren zain (Donostia).

IRAILA

Jaione Uzkiñano.

Erraldoiaren babesean

elkarrekin

(Orio).

URRIA

Gerardo Garcia.

Redera (Hondarribia).

AZAROA

Juan Carlos Gil.

Errezil bajo la bruma


(Errezil).

ABENDUA

Oliver Perez.

Ohiturak mantenduz

(Zumarraga).



IZT

ERALDAKETA
DIGITALEAN
BEHAR DUZUN
BIDELAGUNA



IZT**SETEMAK**




IZT**CLOUD**



IZT**PROGRAMAZIA**

GIZA BALIAIDEAK web aplikazioen dugu, lan erabilerak eta lan erabilerak modu erraz eta sinplean kudeatzeko.



Aplikazio horien bidez, enpresa bakoitzak dagoen eta erabilerak kudeatu izango ditu. Lan erabileraren kudeaketa, kudeaketa eta lan jardueraren gaineko kudeaketa modu erraz eta intuitibo baten. On-line bidezko kudeaketa eta kudeaketa pentsatu.

Langileak berak, berak lan jardueraren erabilerak erabiltzeko gaitasuna izango izango du, beharrezko kudeaketa bidez erabilerak erabilerak erabilerak baliu eta erabilerak izango dira unora.

Etan lan erabilerak, kudeaketa gaitasuna jori gaitasuna kudeaketa.

info.izt.es

Marta Ugaitza,
Kultur Partekatu
20140 Arakasta
948 084 018
www.izt.es



Zutik, Garbiñe Huizi, Josu Iraola, Ander Armendariz, Arkaitz Labega, Mikel Armendariz, Eukén Villasante eta Gorka Loran. Eserita, Iñaki Igerategi, Ainhoa Crespo, Iker Arnaiz eta Txanka Arruti. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Ander Iriarte zuzendariak adituekin eta biktimen testigantzeekin egindako "Karpeta Urdinak" dokumentalak EAEn gutxienez 5.379 herritarrek torturak jasan dituztela baieztatzen duen txostena du oinarri. Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC-KREI) egin zuen txosten hori, eta 2016an aurkeztu zuen.

Azaroaren 27an, dokumentala proiektu ostean, Euskal Herriko Torturatuen Sareak egindako ibilbidea azaldu zien Gorka Loranek Bastero Kulturgunera hurbildu zirenei. Kursaalean 2015ean egindako batzar batean sortu zela eta lau helburu finkatu zituela orduan, zehaztu zuen: "Ahalik eta torturatu gehien saretzea, aitortza kolektiborako bidea urratzea, zaintza, eta, geure kontakizuna eraikitzea".

Lau asmoak deskribatzen hasita, karpeta torturatuak saretzeko eta errolda definitiboa egiteko bitarteko gisa erabiltzen ari direla esan zuen, lehenbiziko eta behin.

Aitortzarako, berriz, bi bide jorratzen ari direla esan zuen: EAE eta Nafarroako legediak (torturatuak beren kasuak azal ditzaten), eta, Kriminologiaren Euskal Institutuak

"Sistematikoa izan zen torturaren erabilera"

Torturaren auzi iluna deskribatzen duen "Karpeta urdinak" dokumentala proiektatu zuten Basteron, joan den azaroaren 27an. Herriko hainbat torturatu bildu zituen ekimenak

bi lurraldeetan egindako ikerketa bana.

Bi ikerketen arabera, ia sei milako kopurura igotzen da orain arte onartu diren tortura kasuak. Bada, bi txosten horiek inflexio puntutzat jo zituen Loranek. "Tresna egokiak dira aurre egiteko torturaren negazionismoari. Izan ere, ofizialki onartzen

baita ia sei mila torturatu dituela Euskal Herriak. Horrek benetako dimentsioa ematen digu, herri txiki bat garela kontuan hartuz gero. Alegia, sistematikoa izan zela torturaren erabilera".

Zaintza ere izan zuen hizpide Loranek. "Elkarkidetzari garrantzia ematen diogu, elkar

topatzeko espazioa behar dugu, babesgunea hitz batean".

Azkenik, kontakizunaren arloa jorratu nahi duela laugarren helburuak, zehaztu zuen: "Izan ere, guk ez badugu kontaktzen gertatu zaiguna, inork ez baitu kontaktuko gure izenean".

Jarraian, Ander Armendariz Andoaingo torturatuen taldeko

kideak zenbakietara eramanez, Andoaingo herriari dagokionez: "Andoainen, 1960az geroztik, 205 pertsona izan dira atxilotuak (26 emakume, 179 gizonezko). Horietatik 78k salatu dituzte torturak (sei emakume, 72 gizonezko). Baina horrek ez du esan nahi horiek soilik izan garenik torturatuak. Guk dauzkagun datuak dira horiek, oraingo".

Azkenik, Gorka Loranek zein Ander Armendarizek Andoaingo tortura jasan duten herritarrei dei berezia egin zieten, karpeta urdina eska dezaten, bertan kontu dezaten beren bizipena, eta sarearen esku utzi dezaten.

Ainhoa Cresporen hitzartze sentikorra

Ainhoa Crespok hitza hartu zuen, ekitaldiari amaiera emanez. Bere bizipen pertsonala biziberritu, eta bezperan etxean idatzitako orrialdea irakurri zuen. Aparteko bihotz-urratua eragin zuen Basteron bildutako entzuleengan. Hona, idatzia:

"Ez naiz luzatuko, dokumentalak zehatz-mehatz kontatu baitu hainbeste aldiz entzun dugun eta aldi berean hain ezezaguna den hitz honen atzean dagoena: TORTURA.

Nola azaldu hitz gutxiarekin zer ezkutatzen den, zer sentitzen den, nola gogoratzen den, bere ondorioak... Egia esan, urteetan ez dugu gaiari buruz ezta ezer entzun nahi izan, pentsatuz hitz egiten ez bagenuen, denborarekin pasatu eta ahaztu egingo zela.

Eta gero konturatzen zara hamaikadak edo mendeak igaro arren, kasu gehienetan ezinezkoa dela zauriak barneratzea, leuntzea, ixtea eta ahaztea. Hasi gara hitz egiten, gaia lantzen, babes-tuta sentitzen, kontatu genuena gertatu zela zalantzan ez jartzen, ez gurela dena asmatu eta geure burua zauritu, alegia, baizik eta gu akabatzeko makina oso bat zegoela diseinatuta.

Egunotan 40 urte bete dira Mikel Zabaltzaren heriotza gertatu zenetik. ELAko kidea zen, eta kito; hori izan zen bere delitua. Bahitu egin zuten, egun askotan desagertuta egon zen, terrorismoaren aurkako legea aplikatu zioten; nire kasuan bezala, 5 egunez pertsona bat inkomunikatzea ahalbidetzen zien legeak, edo 10 beste kasu batzuetan bezala; eta kanpotik eta barrutik txikitu. Eta Mikel

hilda agertu zen Bidasoa ibaian, bertsio arranditsu batekin. Dokumentuak ez desklasifikatzeko eta, errudunak epaitu beharrean, kontrara, kondekoratuak izateko aukera ematen dieten lege horietan guztietan babestu dira.

Askotan entzun dut 'eskuetatik joan zaie' esaldia; baina beti, egiazki, atxilotuek jasandako tortura kasu bakoitzean, eskuetatik joan zaie. Bost egun neka-garri. Lorik egin gabe, jan gabe; poltsa buruan jasan ez, eta botaka egin eta zeure oka irentsi arte; elektrodoak; bortzaketa mehatxuak, txanoa jantzita ordu luzez biluzik egon beharra, nork umiliatzen eta iraintzen zintuen ikus ez zenezan.

Batzuetan kontatzea ere lotsa ematen duten gauzak bizi behar... Eta erlojua geldirik, ez ordurik ezta minuturik eman gabe; denborak ez zuen aurrera egiten, eta behin eta berriz itzultzen ziren egoera horretan zuretik geratzen den horrekin jolasteko asmoz.

Gutako bakoitzak geure bizkar gainean zamatu behar izan dugu guztia, ahal izan dugun moduan, eta gogorra izan arren, erabaki dugu isiltasun hori haustea eta errealitate hori ikusaraztea. Erabaki hori konpontzailea izan daitekeela uste dugu, nahiz eta oraingoz konpontzailea baino gogorragoa izaten jarraitu.

Baina nola hitz egin inkomunikazio garaiko torturei buruz, gerora zain genituenari buruz hitz egin gabe, kartzelari buruz alegia?

Eta zigor handiagoa euskaldun izateagatik soilik. Epaitu aurretik kondenatuak. Denak balio zuen bere eskuetan geundela gogorarazteko.

Inkomunikazioa, isolamendua, bisitarik gabeko zigorrak... Gure senide eta lagunak infinituraino bidaiatzen zuten, biluztu egiten zituzten gu ikusi nahi izatera, azkenak uzten zizkieten urrutitik zetozela bazekitelako, eta urrutira itzuli behar izaten zuten bisiten ostean. Justifikaziorik gabeko lekualdaketak, jipoiak, eta abarrak.

Zenbat aldiz ez ote garen gose greban murgildu, gure eta gure familien eskubideak aldarrikatzeko!

Hori guztia kontatzen dut badakidalako noiz hasten diren zu torturatzen, baina ez noiz amaitzen den tortura, eta, urte luzez, gertaera horien kontura ezkutuan egin dugulako negar".

Irunberriren urteurrena ospatzeko ekitaldi-sorta

Irunberri Kultur Elkartea urteurreneko ospakizunetan murgilduko da, asteburu honetan hasita



Jon Maia eta Maialen Akizu bertsolariak. BERTSOZALE



Erredakzioa ANDOAIN

Ekitaldi-sorta iragarri du elkar-teak, datozen egunetarako: kirol jarduera, babarrun-jatea, bertso-saioa, kontzertua, irteera, kantu kalejira...

Pala-txapelketa mixtoa Abenduak 12, ostirala

Pala txapelketa mistoa jokatu da Aita Larramendi ikastolako frontoian. Egunotan izena emateko aukera dago Irunberrin. 20 euroko da prezioa, bikotearena.

Mendi-irteera

Abenduak 14, igandea

Familiei zuzendutako eguna prestatu dute. Goizeko 10:00etan Irunberrin elkartu eta Trentxikin barrena Talai baserriraino ibilaldia egingo dute. Ondoren, bazkaria izango da elkartean, bakoitzak berea eramanda. Arratsaldean, karaokean parte hartzeko aukera izango da. Intere-sa duenak izena eman behar du tabernan.

Ikasleen emanaldiak, datozen egunotan

Udal musika eskolako hiru abes-batzak kantari ariko dira, igande honetan, San Martin Tours elizan. Arratsaldeko 18:00tan

Pintxo-pote berezia

Abenduak 18, osteguna

19:00etan, pintxo eta edariaren bueltan, hitzordua lotu dute.

Bertso-bazkaria eta kontzertua Abenduak 20, larunbata

14:30 Bertso bazkaria, Jon Maia eta Maialen Akizuren parte hartzearekin. Menua: babarrun-jana, postrea, edaria, kafea eta patxaran kopa. Tiketak tabernan daude salgai, 30 eurotan. Aukera begetarianoa ere badagoela adierazi dute antolatzaileek.

19:30 Malkogarriyak taldea zuzenean ariko da.

Kantu kalejira

Abenduak 21, igandea

Urteurreneko ekitaldiei amaiera emateko, kantu kalejira egingo dutela iragarri dute. 12:30ean hasita, herriko kaleetan barrena ibiliko dira euskal kantu ezagunak lau haizetara zabalduz.

hasiko da kontzertua. Piano-jotzaile gazteak, aldiz, hilaren 17an ariko dira Berrozpeko kapera. Emanaldia 19:00tan hasiko da. Eta hilaren 18an, 18:00tan hasita, ikasleen Gabonetako Kontzertua Basteron.

Artisautza azoka, asteburuan, Guipuzcoanon

Andoainen aski ezaguna den eraikinean azoka izango da abenduaren 12tik 14ra

Erredakzioa ANDOAIN

Abenduaren 12tik 14ra egingo da azoka, Banco Guipuzcoano zenaren instalakuntzatan. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatu du, "Andoaingo euskera, bihotzetik kalera" kanpainaren barruan. Postua jarriko duten artisauak honako hauek dira:

- Aiora Arregi Miner: margo-tutako kamixetak eta abar.
- Haizea Broxa Iartza: akuare-lak.
- Nerea Casete: telaz egindako diademak, koleteroak...
- Lar (Lide Alcalde): bitxiak.
- Olatz Letamendi: Muxxu Belarritakoak.



Banco Guipuzcoano. AIURRI

Serigrafiak eta artelanak

Bi serigrafia salgai jarriko ditu Bazkunak, bere postuan: bat Iñaki Gozalo Erro, Wentxirena, "Guztiok dantzari" izenburukoa eta, bestea, Irati Guarretxena-rena. Bakoitzetik 75 ale jarriko dira, edizio mugatuan, denak zenbakituta eta sinatuta. Bestetik, Xabier Lakak emandako "Zehar" izenburuko obraren 13 ale jarriko dira salgai, egileak zenbakituta eta sinatuta. Azkenik, Larramendi Bazkunak ar-

gitara emandako liburuak, Lekuotzak bilduma, bai eta "Gagarorrira igoera" elastikoa ere.

Aski ezaguna da eraikina Andoainen, Kaleberria 50 helbidean dagoena. Honatx, ordutegia:

- Abenduak 12, ostirala. 17:00-20:00.
- Abenduak 13, larunbata. 10:30-13:30 / 17:00-20:00.
- Abenduak 14, igandea. 10:30-13:30.



AIURRI

Erakusketa zabalik da

Cristina Guerrero artistak Bastero Kulturgunean "¡Cuidado! ¡Problemas de visibilidad!" izeneko erakusketa zabaldu berri du. Aurreko astean egin zuten irekiera-ekitaldia, artista bertan zela. Pop ikonoetan oinarrituriko irudi-muntaiak ikusgai jarri ditu, datorren urtarrilaren 10a bitarte luzatuko den erakusketan.

Pizgarria, euskaraz bizitzeko

Euskararen eta euskaltzaletasunaren aldeko ekitaldia antolatu du Kontseiluak abenduaren 27rako. Bada, harpidedun izateak saria dakar: bi sarrera zozkatuko ditu Aiurrik, izena ematen dutenen artean

Erredakzioa ESKUALDEA

Euskarak bizi duen larrialdi linguistikoaren aurrean, ahal-duntzeko bideak zabaldu nahi ditu Euskalgintzaren Kontseiluak: “Euskaraz bizitzeko Pizkundera” lelopean, ekitaldi nazionala egingo du abenduaren 27an, Bilbon, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Euskaltzaletasunari eta euskarari bultzada ematea du xede ekitaldiak, azken hamarkadetan euskararen biziberritze-prozesuak aurrerapausoak eman baditu ere, “susperraldi aroa eten denaren” zantzuak sumatu baititu Kontseiluak: “Gaur egungo globalizazio eta digitalizazioak, oldarraldiaren areagotzeak, erabilera sozialaren ahultzeak eta erronka berriek agerian utzi dute euskara eta hiztun komunitatea larrialdi linguistikoan gaudela”. Euskarak bestelako arnasaldia behar duela iritzita, ardura hartzeko deia luzatu du erakundeak, “euskaltzaletasunaren giharra” indartzeko: “Izan ere, euskarak eta euskal hiztun komunitateak izan ditu lehenago ere larrialdi gorriko uneak, behin betiko itzaltzeko arrisku momentuak. Eta euskaltzaletasunaren eskutik etorri da aldi bakoitzean Pizkundera”. Hori horrela, euskararentzat bizigarria den ekosistema egonkortu nahi du Kontseiluak ekitaldiarekin: “Euskarak, hizkuntza guztiek bezala, etorkizunik izango badu, unibertso bat behar du, zentzua emango dion irudi eta erreferentzia mundu bat”.

Indar erakustaldia

Urtea indarrez amaitu nahi du Kontseiluak, euskararentzat pizgarri izatea helburu duen ekitaldiarekin. Zergatik da, ordea, garrantzitsua hitzordua? Hiru arrazoi eman ditu Kontseiluak: lehenik, euskaltzaletasunaren indarraren eta batasunaren erakustaldia egitea du helburu



Ekimenaren aurkezpen-ekitaldiko argazkia. KONTSEILUA

Pizkundera, larrialdi linguistikoaren aurrean, “zain gelditu baino, ekimen eta ilusio berriak” sortzeko: “Etsipenean jausi beharrean, euskaraz bizi nahi dugula adierazi, elkarrekin arnasa hartu, eta euskarari etorkizuna emateko prest gaudela erakustea”. Bigarrenik, mezu argia zabaldu nahi dio Kontseiluak euskal jendarte osoari: “Egiturazko minorizazioan dagoen euskararen normalizazioa eta biziberritzea guztion ardura da, gizarte berdintasunarekin, justiziarekin eta askatasunarekin lotutako beste auzi asko bezala”. Hizkuntza-politikei erreparatzen die hirugarren arrazoiak: “Eragile instituzional, politiko, ekonomiko, kultural eta sozial guztiei euskararen ezagutzaren unibertsalizazioaren eta erabilera normalerako baldintzen alde egin dezatela eskatzeko”.

Kultur kutsuko ekitaldia

Euskal sortzaileen unibertsoa jauzi egiteko aukera emango du hitzorduak. Oier Guillanen gidaritza artistikoaren pean, askotariko diziplinako artistak igoko dira oholtza gainera, Kontseiluak zehaztu duenez. Batetik, hamarkadatan “euskararen tau-padaren parte izan diren kantuak”

abestuko dituzte Euskal Herri osoko eta belaunaldi ezberdinetako bederatzi musikaririk: Amets Aranguren, Anari, Beñat Goitia “Benizze”, Gontzal Mendibil, Gorka Urbizu, Joseba Tapia, Julen Goldarazena “Flako Fonki”, Maia Iribarne eta Miren Narbaza. Bestetik, pantaila handian euskaraz nabarmendu diren zenbait aktorek ere hartuko dute parte, besteak beste, Edurne Azkaratek, Itziar Ituñok, Miren Gaztañagak eta Ramon Agirrek eta, era berean, errimen bueltan ariko dira Ane Labaka eta Sustrai Colina bertsolariak, baita kulture gile gehiago ere.

Sarrerak, eskuragarri

Salgai daude dagoeneko ekitaldi joateko sarrerak, 10 euroan. Hala, Kontseiluak gogorarazi du jasotako dirua “osotasunean” artisten lana ordaintzera eta ekitaldiaren gastuen zati bat estaltzera bideratuko dela. Bada, saria dakar Aiurriko harpidedun izateak, izan ere, bi sarrera zozkatuko ditu izena ematen duten parte-hartzaileen artean. Interea duten harpidedunek bi modutara har dezakete parte: urnieta@aiurri.eus helbide elektronikora idatzita edo 619 16 35 37 telefono-zenbakira mezua bidalita.

Joxe Azurmendiren fikziozko joan-etorriak, komikira

“Gizaberetxoak. Joxe Azurmendiren joanak eta etorriak” jaso du Durangoko Azokan aurtengo Sormen Beka



Aurtengo bekaren irabazleak. DURANGOKO AZOKA

Erredakzioa ESKUALDEA

Komikigintzari tokia eman dio aurtengo Gerediaga elkarteak, Durangoko Azokaren zortzigarren Sormen Beka. Hala “Gizaberetxoak. Joxe Azurmendiren joanak eta etorriak” proiektuak jaso du aurtengo saria. Hamabi lan aurkeztu dira guztira aurtengo edizioan eta Ainhoa Olaso, Usue Egia eta Mikel Urdangarin sortzaileek elkarlanean hasitako proiektua ontzeko aukera izango dute datorren urteko abendua iritsi bitartean.

Fikzioa lagun, Angela Davis, Simone Weil, Vandana Shiva, Jule Goikoetxea bezalako pentsalari feministekin elkarriketan ipiniko du hirukoteak Joxe Azurmendi idazlea. Tonu umoretsu bezain zorrotzez josiko dituzte binetak, egun bogan daude jendarteko auzien amuei tiraka. Bada, collagea sortzeko, Euskal Herrian ardaztuta, etxeko eta munduko bazter zein egoera ezberdinetan kokatuko dira autoreok, “krisietatik bilaketetara, gizaberetxo horien ezinegon, galdera eta gogoetak landuko dira, elkarren arteko zubiak eraikiz eta elkar aberastuz”.

Anbiziotsua dela iritzita, aho batez erabaki du aurtengo epaimahaiak komikigintzaren lengoaiari jorratuko den proiektu irabazlea: “Euskal pentsalari handi bat (gizonezkoa bera) bere garaiko mundu mailako pentsalari feministekin elkarriketan jartzen du”. Horrela, begi onez hartu dute epaimahaiakideek “hain seriotzat hartu ohi den

mundu intelektuala umoretik eta jarrera jostari batekin” lantzeko asmoa: “Originala da gaia eta tonua uztartzeko proposamena”.

Proiektu irabazlea “anekdota metaketa batetik harago doan arnas luzeko egitasmoa” dela zehaztu du epaimahaiak, pentsamenduen zein bizipenen gurutzaketa: “Alderdi grafikoari lotuta, interesgarria da formalismotik at estetika propio ez akademizista baten alde eginiko hautua, zeinak bat egin lezakeen istorioan aipatzen diren egileen jarrera intelektual ertzekoarekin”.

Sinopsia

Joxe Arantzazuko Santutegian ikasle dabilela, aita hiltzen zaio lan istripu batean. Fedea auzitan jartzean, bizitzako zimenduak eraitsiko zaizkio eta bizitzaren zentzuaren bilaketan abiatuko da. Une berean, Dynamite Hillen (AEB) arrazializatutako familien aurkako bonba-erasoen ondotik, Angela Davis borroka antiarrazistan aktibatu eta bere ibilbide politikoa hasiko du. Bi pertsonaia horiek munduko txoko ezberdinetan elkar lotzen joango dira, bidean hainbat gizaberetxorekin topatuz.

GALDERAK ETA GOGOETAK LANDUKO DIRA, PROTAGONISTEN ARTEKO ZUBIAK ERAIKIZ

Fracaren oroimenez

Irungo Luis Mariano Lirika Elkartek eta Miryam Ulanga eta Uxue Ricon piano-jotzaileek Andoainen itzal handia utzi zuen Luis Fraca Royo musika-irakaslea eta konposatzailea gogoan hartuko dute, asteburu honetan

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoainen hiru hamarkadetan musika eskolako eta bandako zuzendaria izandako Luis Fraca Royok konposatu zituen hainbat obrarekin kontzertua osatuko dute Basteroko auditorioan, larunbatekin, 19:30etik aurrera.

Iker Sanchezek zuzentzen duen Irungo Luis Mariano Elkartek Lirikoaren Orkestra Sinfonikoak eta Myriam Ulanga Elorz eta Uxue Ricon Ulanga piano-jotzaileek interpretatuko dituzte Fracaren hainbat abesti.

Musikazaleentzat “egundoko oparia” dela kontzertua eta Basterora larunbatean bertara daitezen animatu ditu Myriam Ulangak. Piano-irakasle izan zuen Fraca, eta musika munduan aita ponteko ere izan zuela aitoritzen du. “Ordu mordoia pasa genuen pianoarekin, izugarri irakatsi zidan. Gozatu egiten nuen bera pianoaren aurrean jarri eta bat-batean doinuak asmatzen hasten zenean”. Esan beharrik ez dago zenbateraino izango den apartekoa Ulangarentzat larunbateko kontzertua, “barruak mugitzen ari zaizkit, oroitzen eta emozio ugari eragiten baitizkit kontzertuak. Izan ere, osagai mordoia biltzen du berarekin: Fraca egilea protagonista nagusia izango delako, joko diren doinuak batzuen atzean dagoen historia berezia delako eta horietatik gertu ibiltzea egokitu zaidalako niri, orkestra sinfoniko galanta oholtzan bilduko delako, alaba eta biok piano-jotzaileak izango garelako...”.

Emozio handikoa, Ulangarentzat
Behinola, Fracak Ulangari utzi zizkion bere bizitzan sortu izan zituen obren partituren esku-izkribuak, eta honek ondo zaindu ditu geroztik. “Ohore bat da

bere sormenetik sortutakoak interpretatu eta jendaurrean erakutsi ahal izatea. Are gehiago, orkestra sinfoniko batekin bere partiturak biziberritu ahal izatea; gehiago ezingo luke eskatu piano-jotzaile batek!”.

Ulanga oso eskertuta dago larunbateko kontzertua gauzatu dadin Luis Mariano Orkestra Sinfonikoaren eta Roberto Nuño Donostiako Francisco Escudero Musika Kontserbatorioko zuzendari ohiak erakutsi duten prestutasuna. Nuñori dagokionez, bere gain hartu duen lana azpimarratu nahi izan du Ulangak. “Fracaren partituren esku-izkribuak digitalizatu eta instrumentalizatu egin ditu orkestra sinfoniko batek jo ditzan; soka-tresnontzat (biolina, biola, bio-

lontxelo, kontrabaxua) eta gainerako musika tresnontzat moldatu dituela, alegia. Kontzertua amaitu ostean, oraindik ere behar diren zuzenketak egingo dizkie partiturei, eta ondoren, Eresbil Euskal Herriko Musika Artxiboaren esku utziko ditu”.

Fracaren musika definitzeko eskatuz gero, “kalitate handikoa” eta “entzungarria” dela nabarmendu nahi izan du Ulangak, “erromantizismoaren eta inpresionismoaren unibertsoetatik joaten da maiz. Atmosfera berezi batean murgildu nahi izaten du; kromatismoak gogoko ditu asko, eta konposizioen eskala nagusitik ihes egiten duten notekin jolasten du; erritmoei kontrasteak edo soinuaren arteko borrorak itsasten ditu maiz bere konposaketetan.

Fraca, konposatzaile oparoa

Luis Fraca Royo Ainzon herrian (Zaragoza) jaio zen 1929an, eta 2024an hil zen. Gaztetan, “Musika Zibilen Banden Gorputzeko” titulu ofiziala lortu zuen Madrilgo Kontserbatorioan ikasi eta gero, eta Sestao eta Zaragozako Sos del Rey Católico eta Caspeko herrietako Musika Bandetako zuzendaria izan zen 1957a arte. Hurrengo urtek aurrera, berriaz, Andoaingo Musika Eskola (1958-1989) eta Banda (1958-1972) zuzendu zituen. Andoaingo musika akademian piano eta gitarrako ikasketak eskaini zituen batik bat.

Irakasle ez ezik, konposatzaile ere izan zen, “nire gozamenarako eta entretenimendurako egin izan ditut obra guztiak”, aitortu izan zuen behin baino gehiagotan. Horrela, amaitezina da bere katalogoa, era guztietara interpretatzeko abestiez osa-



Luis Fraca eta Myriam Ulanga Basteron, 2006ko maiatzean, “Piano eta orkestrarako 2. kontzertua, Op. 26, la minorrean” estreinatuta zutenean (Argazkia: Myriam Ulanga).

ULANGA

tua: musika banda, orkestra sinfonikoa, kamera musika, pianoa, biolontxelo, gitarra...

Bi zatiko kontzertua

Bi zatitan banatu dute kontzertua. Bietan ariko da Iker Sanchezek zuzentzen duen orkestra sinfonikoa. Uxue Ricon piano-jotzailea lehen zatian ariko da, eta bigarrenengo Myriam Ulanga piano-jotzailea.

Horrela, lehenengo zatian, eta kontzertuari hasiera emateko, “Andoain” izenburuko pasadoblea joko du orkestrak. Ondoren, “Piano eta orkestrarako gazte-kontzertua Op. 3” obra joko dute Luis Mariano orkestrak eta Uxue Ricon Ulanga piano-jotzaileak. Hiru mugimenduko obra da hori.

Fracak 50eko hamarkadan konposatu zuen obra hori, eta 1986ko apirilean, Donostiako Kontserbatorioko Orkestrak estreinatuta zuen, Tomas Aragüe-

sen gidaritzapean eta Myriam Ulanga piano-jotzailearekin.

Kontzertuko bigarrenengo zatian, Fracak bere jaioterriari eskaini zion “Ainzon Jota Aragonesa del Huecha” interpretatuz ekin dio orkestrak. Segidan, “Piano eta orkestrarako 2. kontzertua, Op. 26, la minorrean” helduko da, orkestraren eta Myriam Ulanga piano-jotzailearekin. Lehengo zatiko obraren antzera, honek ere hiru mugimendu ditu berarekin.

Fracak obra hori 1986ko apirilean konposatu zuen, eta 2006ko maiatzean estreinatuta zuten Andoainen, Myriam Ulanga piano-jotzailearen eskutik.

"OROITZAPEN ETA EMOZIO UGARI ERAGITEN DIZKIT KONTZERTUAK"

MYRIAM ULANGA, PIANO-JOTZAILEA

Urnieta Artola Harategia taldeak lehen postuetan jarraitu nahi du

ESKUBALOIA Urnieta Lanchas Bus kadete mailakoak etxean ariko dira asteburu honetan



Aiert Labayen, hegana. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Bi jardunalditan jarraian etxetik kanpo puntuak lortu ondoren, Urnieta Artola Harategiak etxean galdu zuen (28-30) Bayona Autoak Pulporen aurka. Hala ere, seigarren postuan jarraitzen dute ligan. Asteburuan, Arrasaten dute partida.

Garaipen bikaina lortu zuten Urnieta Lanchas Bus kadeteek Legazpiko kantxan, non urnietarrek (29-34) irabazi zuten partidid zirrargarri batean, Gipuzkoako txapelketan laugarren

postua sendotuz. Hiru jardunaldi falta direla, UKEkoek beren esku dute lehen lau postuetan amaitzea. Asteburuan, etxean ariko dira Orioren aurka.

Garaipen sendoa ere kadete mailako Urnieta Iñaki Mecanizadosek Ordizia Oianguren aurka lortu zuena (39-13). Taldeak multzoko lehen postuan jarraitzen du. Hasieratik norgehiagoka erosoan izan zen UKEkoentzat, hasieratik aurkariari nagusitu egin baizitzaion taldea, denboraldiko progresioarekin jarraituz.

Gabonetako Kanpusa antolatu du Euskaldunak

Hiru eguneko saioz osaturiko bi txanda antolatu dituzte aurtun. Hala ere, egun bakarra, txanda

osoa edo bi txandak aukeratzeko aukera eskaintzen du klubak. Prezioa erabakitako aukeraren arabera da. Izen-emate epea ostiralean amaituko da. 2014-2017 urteen artean jaiotako neska-mutuei zuzenduta dago.



Urnieta
udala

LASTERKETA Andoaingo San Silbestrean izena emateko epea, zabalik

Aurtun ere, abenduaren 31n, lasterketa izango da Andoaingo kaleetan. Goizeko 11:30ean hasiko da lasterketa eta antolatzailerik parte-hartzaileen gehieneko kopurua 450ean mugatu dute. Izen-ematea rockthesport.com gunearen bitartez egin behar da. Ohi bezala, Zumea plazatik abiatuko da lasterketa, 5,3 kilometroko ibilbidea osatu arte.

PALA Pala-txapelketa mixtoa, ostiral honetan

Irunberri elkarteak antolatuta, egun berean egingo dira kanporaketak, 3-4. postuak eta finala. Aurtengoan, arratsaldean hasita, Aita Larramendi ikastolako pilotalekuan jokatuko dira partidak: aurre-kanporaketak, 3-4. postuak eta finala. Eta, ondoren, parte-hartzaileen arteko afari-merienda egingo dute Irunberrin.

IGERIKETA Alebin mailan hasita, trebatzen ari dira

Aurreko egunetan Alebin Ligako 2. jardunaldia egin zen Allurralden. Urko Azpiazu eta Nora Becerra andoaindarrek bertan hartu zuten parte eta proba guztietan lortu zituzten marka hobekuntzak. Hurrengo jardunaldia Lazkao igerilekuan izango dute, abenduaren 20an ospatuko den Alebin Ligako 3. jardunaldian.



Urko Azpiazu eta Nora Becerra. AIURRI

Azken txanpan galdu zuen partida Euskaldunak

FUTBOLA Bergara, Urola eta Mondragon taldeen aurka golak jaso ditu azken minutuetan



Artxiboko irudia. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Igoera lortu duenetik, Euskaldunari puntuak lortzea kosta tzen ari zaio. Asteburuko partida bakarrenetakoa jokatu zuen Gizonezkoen Ohorezko Erregional Mailako Euskalduna taldeak. Larunbat goizean Mondragon bisitaldia jaso zuen Gaztañagaren taldeak eta partida berdinetarekin amaitzeaz zela gola egin zuen aurkariak. Puntuak eskuratzeko zailtasunak eta, gainera, modu krudelekin galtzen ari dira, hain zuzen, partidaren azken hondarrean. Antzekoa gertatu zitzaion aurreko jardunaldietan Bergara eta Urola taldeen aurka.

Larunbat honetan Real Union B taldearen zelaian ariko dira, 16:15ean hasita. Lidertzan sendo dabil Irungo taldea, bigarren sailkatuak baino 7 puntu gehiago baititu. Oso partida zaila izango da andoaindarrentzat.

Gabonen aurretik Amaiak Bat taldea hurbilduko da Ubistartera eta hori bai izango dela puntuak eskuratzeko jardunaldi ona.

Gorengo mailako emakumezkoak, Ubitarten

Aurreko jardunaldian ligako bigarren porrota ezagutu zuen Iker Laskibarren taldeak. 2-0 galdu zuten Antigua Luberriren aurka. Hala eta guztiz ere, lidertzan dira eta lau puntuko aldea ateratzen diote Usurbil taldeari.

Larunbat honetan garaipenaren bidean jarraitzeko aukera berria izango dute, Ubitarten bertan, Intxaurdi B taldearen aurka. 18:30ean hasiko da partida. Lehen itzulian, Euskaldunak 0-1 irabazi zuen Cesar Benito zelaian. 11. jardunaldia amaitzean, Liga azken txanpan sartuko da.

Kirol merezimenduak

Urtea amaitzearekin batera, balantzea egiteko garaia heldu da. Kirol jardueri dagokionez, Andoaingo Udalak aitortza egingo die 2025ean nabarmendu diren kirolari eta kirol taldeei. Ekitaldia datorren asteazkenean izango da, abenduak 17, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. Iluntzeko 19:00tan hasiko da ekitaldia.



AIURRI



Adarrara igoera. ALAIN PAULIS

Adarrara gauez igotzeko hitzordua, hilaren 19an

MENDIZALETASUNA Frontala eta neguko arropa eramatea gomendatu dute antolatzaileek

Erredakzioa URNIETA Zanpatuz mendi elkarteak Adarramendiko gaueko igoera antolatu du, datorren abenduaren 19rako (ostirala). 18:00tan abiatuko dira Besabitik, eta San Juan plazatik kotxez igotzeko aukera izango da 17:30ean hasita. Elkartzeko hitzordua herriko San Juan plazan izango da, 17.30ak aldera, ahalik eta kotxe gutxien igotzeko. Besabin denak batu, eta mendira abiatuko dira. Antolatzaileek buruko argia edo frontala, eta neguko arropa eramatea gomendatzen dute, eguraldia medio. Mendizale guztiei zabalik dagoen hitzordua da.



Urnietako taldea, artxiboko irudian. AIURRI

Ostadar liderra jasoko du etxean gizonezkoen lehen taldeak

FUTBOLA Gorriek garaipena lortuz gero, sailkapena nabarmen estutuko litzateke urnietarrentzat

Erredakzioa URNIETA Ostadar, Hondarribia, Inter, Urnieta... Garaipen bakarreko aldea dago sailkapenaren gaialdean, gizonezkoen gorengo mailako lehen multzoan. Talde horien guztien begiradan izango da, beraz, Urnieta eta Ostadar taldeen arteko partida. Larunbatean jokatu dute, 18:45tan hasita. Gorriek garaipena lortuz gero, sailkapena nabarmen estutuko litzateke. Puntu bakarra

edo hiru lortzea garrantzia handikoa izan daiteke etxekoentzat.

Emakumezkoak, Zarautzen Igandean, arratsaldeko 17:00tan, Zarautz Bren aurka ariko dira Urnietako emakumezkoak. Aurreko jardunaldian Martuteneren aurka galdu zuten etxean (0-2), eta datorren asteburuan hiru puntuak lortu nahiko dituzte sailkapenaren azken postuan dagoen taldea garaituta.

Ansa II-Zubiri bikotea Binakakoko lehen postuan da

Binakako txapelketako bosgarren jardunaldia Ansa II-Zubiri eta Jabalera-Juanenea bikoteen arteko partidarekin hasi zen. Ansa izan zen partidako onena eta,

Zubirirekin batera, 2-0 irabazi zuten (15-8 eta 15-11). Garaipen horri esker, 16 puntu dituzte eta sailkapeneko lehen postuan jarraitzen dute; Jabalera eta Juanenea, berriz, matematikoki kanporatuta geratu dira. Asteburu honetan beste bikoteen txanda izango da.



AIURRI

Leizaran taldearen batzarra

Urteko Ohiko Baltzar Nagusia deitu du eskubaloit-taldeak. Urigainen izango da abenduaren 18an, ostegunarekin, iluntzeko 19:30ean lehen deialdian, eta 20:00etan bigarren eta azken deialdian. Gai-zerrenda: Klubaren kirol-egoera, 2024-2025 denboraldiko balantze ekonomikoaren onarpena, zuzendaritza batzordearen berrespena, galde-erreguak.



AIURRI

Boleia, Andoaindik gertu

Bolei taldeak badira Hernanin eta Aiztondo aldean, baina Andoainen eta Urnietan ez. Datozen bi asteburuetan, Amasa-Villabonan, Gipuzkoako finalurrekoak eta finalak jokatu dira. Kirol jarduera ikusgarriaz gozatzeko aukera dago, beraz. Partida horietan protagonista izango dira Aiztondo klubeko taldeak.

LV

BINAKAKO

ERREMONTA

TXAPELKETA 2025

Orona

Fundazioa

ABENDUAK 13

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA JAI ALAI

1. PARTIDA (2 MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA)

GOIKOETXEA V · GOIKOETXEA VI VS **DESKARGA · MARTIRENA**

2. PARTIDA (BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA)

EZKURRA II · LARRAÑAGA VS **ALDABE · AZPIROZ**

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

ANSA II · ZUBIRI VS **JABALERA · BARRENETXEA IV**

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Erakusketa

Cristina Guerrero artistak Bastero Kulturgunean "¡Cuidado! ¡Problemas de visibilidad!" izeneko erakusketa zabaldu berri du.

Azken eguna: Urtarrilak 10.
Bastero Kulturgunea.

DEIALDIA

URNIETA Jabekuntza Eskola

Lilatoiaren prestaketa, sormen tailerra, brikolaje tailerra... aukera zabaldu dago Urnietan.

Informazioa: Urnieta.eus.
Izen-ematea: Abenduak 15.

ANTZERKIA

URNIETA "Desobedienteak"

Tiantaka Teatro konpainiaren aurre-estrenaldia, 18/98 sumarioa ardatz hartuta.

19:00, Sarobe. 7 euro.
Abenduak 14, igandea.

KONTZERTUAK

ANDOAIN Kontzertua

Luis Fracaren oroimenez.

19:30, Bastero.
Abenduak 13, larunbata.

ANDOAIN Mingofisuras

Donostiako taldearen disko berriaren aurkezpena.

19:30, Ganbara taberna.
Abenduak 13, larunbata.



Artxiboko irudia. URNIETAKO UDALA

URNIETA Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleen emanaldiak

Abenduak 15, astelehena: 18:00. Kontzertua.

Abenduak 16, asteartea: 18:00. Trikitixa-emanaldia. 19:15. Biolina, pianoa.

Abenduak 17, asteazkena: 17:45. Talde emanaldia. 19:00. Piano-emanaldia.

Abenduak 18, osteguna: 17:00. Musika-tailerra kontzertua.

Abenduak 15-18, Sarobe.

ANDOAIN Kontzertua

Udal Musika Eskolako Abesbatzak.

18:00, San Martin Tours eliza.

Abenduak 14, igandea.

ANDOAIN Piano emanaldia

Udal Musika Eskolako ikasleak.

19:00, Berrozpe.

Abenduak 17, asteazkena.

ANDOAIN Iratxo Enea

Udal Musika Eskolako ikasleak.

18:00, Bastero.

Abenduak 18, osteguna.

ANDOAIN Olatz Salvador

"Zainak eman" diskoaren aurkezpena.

19:30, Bastero.

Abenduak 19, ostirala.

GABONAK

ANDOAIN Gabon festa

12:30 Urkien eskutik, gaztainak eta dantza Juanita Alkain plazan.

18:00 Olentzerok eta Mari Domingik gutunak jasoko dituzte Etxeberrietan.

Abenduak 20, larunbata.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Sirat. Trance en el desierto

Astelehena, 15. 19:30.

Zootropolis 2

Larunbata, 20. 17:00.

Igandea, 21. 17:00.

Singular

Larunbata, 20. 19:30.

Igandea, 21. 19:30.

Astl., 22. 17:00,

19:30.

La deuda

Asteartea, 23. 19:30.



SINOPSIS

Sirat. Trance en el desierto

Zuzendaria: Oliver Laxe. **Aktoreak:** Sergi Lopez, Bruno Nuñez, Jade Oukid, Stefania Gadda, Richar Bellamun... **Generoa:** Drama, intriga. **Iraupena:** 114 minutu.



Sariketa handietan hautagaia da

Gizon batek (Sergi López) eta bere semeak (Bruno Núñez) Mar bilatzeko bidaiatzen dute Marokoko jai galdu batera; Mar alabaren eta arrebaren bila dabilta, hilabeteak lehenago egunsentirik gabeko festetako batean desagertu baitzen. Argazkia behin eta berriz banatzen dute, elektronika musikaz eta ezagutzen ez duten askatasun giro batez inguratuta. Festazale talde batekin topo egiten dute, eta haiekin batera basamortuan egingo den azken festa batera jotzea erabakitzen dute, han gaztea desagertua aurkituko dutelakoan.

Kontzertu
solidarioa

Señor No, The Capaces, John Dealer and the Coconuts, Gaizkiñe, Flash, The Marteen eta Ezekiel DJa ariko dira abenduaren 13an, Andoaingo Gaztetxean. Kontzertua arratsaldeko 18:00tan hasiko da. Emanaldia Ruben Gelbentzu andoaindarraren eta Jon Lizarribar urnietarraren omenezkoa izango da. Azken sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

"Desobedienteak 18/98" antzezlan, Saroben

Aurre-estreinaldia igande honetan izango da, iluntzeko 19:00tan hasita

Erredakzioa URNIETA
18/98 auzia aski ezaguna izan zen Euskal Herrian, ETaren akusaziopean herritar eta ekimen ugari epaitu zituztelako. Ttanta Teatro konpainiak Joxemi Zumalabe Fundazioaren kasua abiapuntu hartu du: prozesu judizial hura gogoan hartuz, desobedientzia zibilaren historian barrena bidaia batean murgiltzen du ikusleagoa, desobedientziaren azken garapenei ere erreparatuz. "Zergatik desobeditu? Noiz desobeditu behar dugu legezkoa dena legitimotasun handiago batera hurbiltzeko? Legezkoa beti al da legitimoa? Legitimoa al da desobedientzia zibila gizarte demokratikoetan? Balio

al du desobedientzia zibilak legeak erreformatzeko tresna politiko gisa?", galdera horiek bulkada modukoa izan ziren Maria Goirizelaia obraren egi-learentzat. Bilbon jaioa, 1983an, zuzendaria, dramaturgoa, aktorea eta antzerki-ikertzailea da. Bere azken lanen artean nabarmentzen dira Yerma (Sala BBK), Altsasu (Arriaga Antzokia) eta El Patio de mi casa. Azken lan honekin, Max Sariatetan egile errebelazio onenaren finalizatzen izendatu zuten. 2017an, Ane Pikazarekin batera, La Dramatica Errante konpainia martxan jarri zuen. Egun, zuzendari eta idazle izateaz gain, Sala BBKren programatzaile artistikoa da.



Oholtza gainean ariko den aktore-taldea. TTANTAKA

Bernues eta Gabirondoren zuzendaritzapean, bost aktore igoko dira oholtzara.

Aurre-estreinaldia Urnietan izango da, igande honetan, 19:00tan hasita.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Nerea
27 urte beteko dituzu abenduaren 30ean. Gozatu bizitzaz!!! muxu pottoloak, etxekoak

ODOL-EMAIKAK

ANDOAIN

Abenduak 15, astelehena.
Osasun etxea:
16:30- 20:15.
Deitu aurretik:
943 007 884..





KANTARI

BADATOR!

- Abao Komunikazio Agentziak eta Andoaingo Udalak KANTARI ikuskizuna antolatu dute.
- Otsailean egingo dugu KANTARI. Beraz, Lehen Hezkuntzako ikaslea bazara eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, animatu eta eman izena.
- Gutxienez, hiru laguneko eta gehienez bost laguneko taldeak osatu beharko dituzue. Abestiak zozketa bidez banatuko dira.

Izena emateko azken eguna: 2025ko abenduaren 15a

- <https://gukantari.eus/izen-ematea/> helbidean sartu eta bertan eman beharko da izena.
- Gogoratu helbide elektronikoa eta telefono zenbakia ongi jarri dituzuela ziurtatzeaz.



Informazio gehiago:
943 08 10 30 edo gukantari.eus



GABONETAKO AZOKA

Herriko
artisautza
postuak,
musika eta
gehiago!

Abenduak 12

O S T I R A L A



17:00-20:00

Abenduak 13

L A R U N B A T A



10:30-13:30

17:00-20:00

Ardo dastaketa

19:00

(aldea zuzenean izango da, berreraoan amandibakoia euz)

Abenduak 14

I G A N D E A



10:30-13:30



Kaleberria 50, Guipuzcoano zaharra

Antolatzaileak:

